

## 7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Gure enpresa aurrera eramateko baliabideak behar izango ditugu, horren artean hiru talde handi banatzen ditugu. Baliabide fisikoen kasuan baliabide beharrezkoena kaskoak eta diskotekaren lokala izango dira. Gainera, bezeroak etor daitezten autobus bat jarriko dugu pertsonak garraio publikoa erabil dezaten. Honen ibilbidea Durangaldeko herrietatik Boroaraino izango da. Autobusak orduro egongo dira, beraz autobusa beharrezkoa dugun baliabide bat bihurtzen da. Hau elektrikoa izango da, orduan kutsadura gutxiago sortuko du eta ingurumarekiko inpaktua txikiagoa izango da. Horrekin batera garraio publikoa fomentatuko dugu eta honela kotxe gutxiago erabiliko direnez kutsadura maila murriztuko da.

Honek bezeroei onura egingo die batez ere kotxerik ez badute, kasu honetan 16 urteko gazteek ez dutenez izango haien gurasoentzako ere onura handia izango da, autobus honekin segurtasuna opatzen diegulako eta gurasoak ez dira seme-alaben bila joan behar orduan lo egiteko orduak ematen dizkiegu. Nagusiei ere ondo egiten die batez ere edan nahi badute, honela gero ez dute zertan autoa hartu behar istripuak ekidituz.

Baliabide intelektualak eta giza baliabideak beharrezkoak dira baita ere. Gure kasuan bostok berriztatzaileak gara ideia berriak eta modernoak sortzeko ahalmen handia dugu eta. Enpresa bat irekitzeko behar den informazioa eta formakuntza dugu enpresarioak garelako baita gazteriaren gustuak eta modak ondo ezagutzen ditugu azken finean gazteak garelako.

Iraiak eta Marenek administrazio lanak egingo dituzte. Zer eskatu behar den, zer falta den. Kontuak egiten onak direnez zutabe inportante bat izango dira enpresa aurrera eramateko momentuan. Eskerak eta honekin bat datozen gauza guztiak hauen kontu izango dira.

Mirenek eta Ugaitzek kontratatu edo kaleratu beharreko pertsonak eta lokalaren egoerarekin zerikusia duten gauza guztietz arduratuko dira. Pertsonak jarritako hobekuntza eskaerak kontuan izanik lokala hobetzen saiatuko dira. Barman bat kontratatzerakoan edota diskotekarako atezain bat kontratatzerakoan hauek kudeatu eta hauekin zer egin erabakiko dute. Zerbait konpondu edo aldaketaren bat egin behar bada hauek emango dute abisua eta lehen baitlehen konpontzen saiatuko dira diskotekaren erritmoa ez gelditzeko.

Azkenik Nahia webguneaz eta bezeroaren arretaz enkargatuko da. Teknologia ondo kudeatzen dituzenez eta hitz egiteko ahalmen oso ona duenez bezeroekin harremanetan jartzerako orduan ez du arazorik izango. Berak kartelak eta "post-ak" sortuko ditu eta hauek partekatuko ditu.

Bestalde, diskoteka irekitzeko dirua ezinbestekoa dugu, horretarako finantza-baliabideak behar ditugu. Gure kasuan gure dirua erabiliko dugu eta gehiago behar badugu mailegu bat

eskatuko dugu. Zehaztu finantza baliabide horiek bazkideen ekarpenetatik ere etorriko direla.